Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko ekainaren 16a, asteazkena — 112 — Miércoles, a 16 de junio de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*3/2021 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 15ekoa, COVID-19aren pandemiarekin lotutako zerga neurri gehigarriei buruzkoa.*

COVID-19aren pandemiak 2021. urtea markatzen jarraitzen du, 2020. urtea markatu zuen bezala; horrela, bere inpaktua luzatzen du, bai osasunaren arloan, bai eremu sozial eta ekonomikoan.

Herritarren txertaketa pixkanaka bizkortzen ari da, eta horrek aukera ematen du, osasun ikuspegitik eta, ondorioz, ikuspegi sozial eta ekonomikotik, etorkizun hobea ikusteko.

Hala eta guztiz ere, pandemia horrek enpresa eta autonomo askoren diru sarrerak nabarmen murriztea eragin duela kontuan hartuta, eta produkzio sarea babesteko eta ekonomian egiturazko inpaktua saihesteko helburuarekin, administrazio publikoek, bakoitzak bere esparruan, enpresei eta autonomoei laguntzeko hainbat neurri sorta onartu dituzte, besteak beste, likidezia eta kaudimena babesteko laguntzak.

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak izaera desberdineko hainbat neurri onartu izan ditu, besteak beste zergen arloan hartutakoak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Ekonomia Itunaren Legeak lurralde historikoei esleitutako eskumenei jarraikiz.

Horrela, zergen arloari dagokionez, zortzi foru dekretu-arauak eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren foru aginduak aipatu behar dira.

Foru dekretu-arau honen bidez, produkzio sareari zuzendutako hiru zerga neurri berri sartzen dira. Neurri horiek segurtasun juridikoa ematea eta enpresen, profesionalen eta autonomoen likidezia eta kaudimena bermatzen laguntzea dute helburu.

Lehen neurria lotuta dago Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Ekonomia Indartuz planarekin, zeinaren helburua den Gipuzkoako ekonomia sareari laguntzea eta eraldatzea eta zeinaren bidez foru erakundeak programa, laguntza eta neurri multzo bat osatuko duen, betiere lurraldeko ekonomia indartu eta COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko asmoz.

Helburuak errazago lortzeko, ahalbidetu egiten da, alde batetik, zor gerorapen edo zatikapenak onartu zaizkien enpresek eta profesionalek Gipuzkoako Foru Aldundiak Ekonomia Indartuz planaren barruan deitu dituen laguntzen onura benetan hartu ahal izatea, kasu horietan bien arteko konpentsazioa erabili gabe, dirulaguntza onuradunarentzat efektiboa izan dadin.

Bestalde, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsonentzat, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jarduera ekonomikoaren etekin gisa kalifikatzen dira enpleguaren aldeko gi-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Decreto Foral-Norma 3/2021, de 15 de junio, de medidas tributarias adicionales relacionadas con la pandemia de la COVID-19.*

La pandemia de la COVID-19 continúa marcando el curso del año 2021 como ya marcó el del año 2020, prolongando de esta manera su impacto tanto en el ámbito sanitario como en el social y el económico.

La progresiva aceleración de la vacunación de la población permite vislumbrar, sin embargo, un horizonte más benévolo desde la perspectiva sanitaria y, por consiguiente, desde los puntos de vista social y económico.

No obstante, habida cuenta que esta pandemia ha provocado una reducción significativa de los ingresos de muchas empresas y autónomos, y con el fin de proteger el tejido productivo y evitar un impacto estructural sobre la economía, las Administraciones públicas, cada una en su ámbito, han venido aprobando diferentes paquetes de medidas para apoyar a empresas y autónomos, entre ellas, ayudas destinadas a preservar su liquidez y solvencia.

En este sentido, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido aprobando diversas medidas de diferente naturaleza, entre las que cabe destacar las adoptadas en el ámbito tributario, en virtud de las competencias atribuidas a los Territorios Históricos por el Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Ley del Concierto Económico.

Así, en lo que a la materia tributaria se refiere, cabe aludir a los hasta ocho decretos forales-norma y las diversas órdenes forales dictadas desde el ámbito del Departamento de Hacienda y Finanzas.

A través del presente decreto foral-norma se incluyen tres nuevas medidas tributarias dirigidas al tejido productivo, que tienen por objeto ofrecer seguridad jurídica y coadyuvar en el aseguramiento de la liquidez y solvencia de las empresas, profesionales y personas trabajadoras autónomas.

La primera de las medidas está relacionada con el plan Ekonomia Indartuz, un plan de apoyo y transformación del tejido económico de Gipuzkoa aprobado por la Diputación Foral de Gipuzkoa, y que se erige como la herramienta a través de la cual la institución foral articulará todo un conjunto de programas, ayudas y medidas con el objetivo de fortalecer la economía del territorio y superar la crisis provocada por el COVID-19.

Al objeto de facilitar la consecución de sus objetivos, por una parte se posibilita que las empresas y profesionales que tengan concedidos aplazamientos o fraccionamientos de deuda puedan beneficiarse efectivamente de las ayudas convocadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa dentro del plan Ekonomia Indartuz, sin que tenga que operar para estos casos la compensación entre ambas, de manera que la subvención resulte efectiva para su beneficiario.

Por otra parte, para las personas que ejerzan actividades económicas, se califican como rendimiento de actividad económica del impuesto sobre la renta de las personas físicas, las

EK\CV GAO-I-2021-04199

zarte neurriak indartu eta sendotzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Lege Dekretuaren 5.etik 8.era bitarteko artikuluetan eta enplegua defendatu, ekonomia suspertu eta langile autonomoak babesteko presazko neurriei buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuak 6.etik 9.era bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera jaso dituzten jarduera uzteagatiko prestazioak, betiere aurreko beste foru dekretu-arau batzuek Estatuak aurretik onartutako antzeko laguntzetarako ezarri zuten bezala. Kalifikazio hori laguntzen indarraldia luzatzeko eman daitezkeen xedapenetara ere zabaltzen da.

Azkenik, COVID-19aren pandemiari erantzunez, Gipuzkoako lurralde historikoaren araugintza eskumenekoa den edozein zerga itundutatik salbuesten dira enpresa kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzko martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoa aplikatuz egindako birkapitalizazio eragiketak. Errege lege dekretu horren bidez, COVIDak eragindako enpresak birkapitalizatzeko funtsa sortzen da. Salbuespenak eragina du, halaber, funtsen ekarpenetan edo kapital zabalkuntzetan, baldin eta funts horren kargura partaidetutako enpresen finantza eta ondare kapitalizaziorako edota berregituraketarako gauzatzen badira.

Neurri horiek onesteak badu eraginik foru arau bidez erregulatu behar diren gaietan, eta, bilatzen den erantzuna, presakoa izanik, ezin denez lortu foru arauak onartzeko araututa dagoen prozedura arrunta erabilita, egoki irizten da neurriak foru dekretu-arau bidez onestea, berehala aplikatzekoak direla kontuan hartuta.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du ezen, aparteko eta presako arrazoiak daudenean, Diputatuen Kontseiluak behinbehineko arau xedapenak eman ahal izango dituela, eta xedapen horiek foru dekretu-arauen forma izango dutela. Horrelako xedapenek ezingo diete eragin foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari. Foru dekretu-arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta bozkatu behar dira berehala, baliozkotuak izateko.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. Zor geroratuak eta zatikatuak subentzioekin ez konpentsatzea.*

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 72.1 artikuluan eta abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Erregelamenduko 38.3 artikuluaren c) letran eta 44.1.A artikuluaren b) letran jasotakoa jasota ere, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ebatzi ahal izango du zor geroratu edo zatikatuak Gipuzkoako Foru Aldundiak Ekonomia Indartuz planaren barruan deitutako subentzio eta laguntzekin ez konpentsatzea, baldin eta zor horien ez-konpentsatzea modu arrazoituan aurretik eskatu badu deialdi horiek egiteko eskumena duen departamentuko foru diputatuak.

*2. artikulua. Jarduerari uzteagatiko prestazioak langile autonomoentzat, COVID-19aren gaixotasunaren zabalpenari aurre egiteko neurrien ondorioz.*

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek jarduera uzteagatiko prestazio moduan jasotako kopuruak jarduera ekonomikoen etekintzat hartuko dira, betiere prestazio horiek jaso badira Enpleguaren alde-

prestaciones por cese de actividad recibidas en virtud de lo previsto en los artículos 5 a 8 del Real Decreto-ley 2/2021, de 26 de enero, de refuerzo y consolidación de medidas sociales en defensa del empleo, y en los artículos 6 a 9 del Real Decreto-ley 11/2021, de 27 de mayo, sobre medidas urgentes para la defensa del empleo, la reactivación económica y la protección de los trabajadores autónomos, de igual manera que otros decretos forales-norma anteriores establecieron para ayudas semejantes aprobadas con anterioridad por el Estado. Esta calificación se extiende también a las disposiciones que, en su caso, regulen la prórroga de la vigencia temporal de las ayudas.

Por último, se declara la exención de cualquier tributo concertado cuya competencia normativa corresponda al Territorio Histórico de Gipuzkoa, de las operaciones de recapitalización efectuadas en aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 del Real Decreto-ley 5/2021, de 12 de marzo, de medidas extraordinarias de apoyo a la solvencia empresarial en respuesta a la pandemia de la COVID-19, por el que se crea el Fondo de recapitalización de empresas afectadas por COVID. La exención afecta también a las aportaciones de fondos o ampliaciones de capital, que eventualmente se ejecuten para la capitalización y/o reestructuración financiera y patrimonial de las empresas participadas con cargo a dicho Fondo.

La aprobación de estas medidas incide en aspectos que requieren su regulación por norma foral, y resultando que la respuesta perseguida, de carácter urgente, no puede conseguirse a través del procedimiento normativo ordinario de aprobación de norma foral, se considera procedente su aprobación mediante un decreto foral-norma, justificado en la inminente aplicación de las medidas a adoptar.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de dictar por el Consejo de Gobierno Foral, por razones de extraordinaria y urgente necesidad, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales. Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación en las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

*Artículo 1. No compensación de deudas aplazadas y fraccionadas con subvenciones.*

No obstante lo previsto en el artículo 72.1 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en la letra c) del artículo 38.3 y la letra b) del artículo 44.1.A del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas podrá resolver la no compensación de deudas aplazadas o fraccionadas, con aquellas subvenciones y ayudas convocadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa dentro del plan Ekonomia Indartuz, cuya no compensación haya sido previamente solicitada motivadamente por parte de la diputada o del diputado foral del departamento competente para realizar dichas convocatorias.

*Artículo 2. Prestaciones por cese de actividad para las personas trabajadoras autónomas como consecuencia de las medidas de contención de la propagación del virus COVID-19.*

Con efectos desde el 1 de enero de 2021, los importes percibidos por las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas, que ejerzan actividades económicas, en concepto de prestación por cese de actividad, reguladas en los artículos 5, 6, 7 y 8 del Real Decreto-ley 2/2021, de 26 de enero, de

EK\CV GAO-I-2021-04199

ko gizarte neurriak indartu eta sendotzen dituen urtarrilaren 26ko 2/2021 Errege Dekretu Legeak 5.etik 8.era bitarteko artikuluetan, Enplegua defendatu, ekonomia suspertu eta langile autonomoak babesteko presazko neurriei buruzko maiatzaren 27ko 11/2021 Errege Lege Dekretuak 6.etik 9.era bitarteko artikuluetan eta haien indarraldien luzapena arautu dezaketen xedapenetan.

*3. artikulua. COVID-19ak eragindako enpresak birkapitalizatzeko funtsa.*

2021eko martxoaren 13tik aurrerako ondorioekin, Gipuzkoako lurralde historikoaren araugintza eskumenekoak diren edozein zerga itundutatik salbuetsita egongo dira martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuak, Enpresen kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzkoak, 17. artikuluan jasotakoa aplikatzetik zuzenean edo zeharka eratorriak diren ondare eskualdaketa, sozietate eragiketa eta egintza guztiak. Aipatutako errege lege dekretuaren bidez, COVID-19aren pandemiaren aurrean, COVID-19ak eragindako enpresa birkapitalizatzeko funtsa sortzen da, bai eta funts horren kargura partaidetutako enpresak kapitalizatu edota finantza eta ondare aldetik berregituratzeko inoiz gauzatzen diren funts ekarpenak edo kapital zabalkuntzak ere.

*Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmenak.*

*Bat.* Baimena ematen zaie Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari foru dekretu-arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

*Bi.* Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari foru dekretu-arau honetan jasotako zerga neurrien indarraldia edo ondorioak foru agindu bidez luzatzeko, betiere haiek onartzea eragin zuten salbuespenezko zirkunstantziek irauteak hala justifikatzen badu.

*Azken xedapen bigarrena. Indarrean jartzea.*

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu-arau hau, bertan espresuki jasota dauden ondorioak eragotzi gabe.

Donostia, 2021eko ekainaren 15a.

Diputatu Nagusia,
Markel Olano Arrese.

Ogasun eta Finantza
Departamentuko
Foru Diputatua,
Jokin Perona Lerchundi.

(4199)

refuerzo y consolidación de medidas sociales en defensa del empleo, y en los artículos 6, 7, 8 y 9 del Real Decreto-ley 11/2021, de 27 de mayo, sobre medidas urgentes para la defensa del empleo, la reactivación económica y la protección de los trabajadores autónomos, así como en las disposiciones que, en su caso, regulen la prórroga de sus vigencias temporales, tendrán la consideración de rendimientos de actividades económicas.

*Artículo 3. Fondo de recapitalización de empresas afectadas por COVID-19.*

Con efectos desde el 13 de marzo de 2021, todas las transmisiones patrimoniales, operaciones societarias y actos derivados, directa o indirectamente de la aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 del Real Decreto-ley 5/2021, de 12 de marzo, de medidas extraordinarias de apoyo a la solvencia empresarial en respuesta a la pandemia de la COVID-19, por el que se crea el Fondo de recapitalización de empresas afectadas por Covid, e incluso, las aportaciones de fondos o ampliaciones de capital, que eventualmente se ejecuten para la capitalización y/o reestructuración financiera y patrimonial de las empresas participadas con cargo a dicho Fondo, estarán exentos de cualquier tributo concertado cuya competencia normativa corresponda al Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Disposición final primera. Habilitaciones normativas.*

*Uno.* Se autoriza a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la diputada o al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias en desarrollo y aplicación del presente decreto foral-norma.

*Dos.* Se autoriza a la diputada o al diputado foral de Departamento de Hacienda y Finanzas para prorrogar, mediante orden foral, la vigencia o los efectos de las medidas tributarias contenidas en el presente decreto foral-norma, siempre que lo justifique el mantenimiento de las circunstancias excepcionales que motivaron su aprobación.

*Disposición final segunda. Entrada en vigor.*

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sin perjuicio de los efectos expresos previstos en el mismo.

San Sebastián, a 15 de junio de 2021.

El Diputado General,
Markel Olano Arrese.

El Diputado Foral
del Departamento de
Hacienda y Finanzas,
Jokin Perona Lerchundi.

(4199)

EK\CV GAO-I-2021-04199